









# GAZTEENTZAKO ZERBITZU BILDUMA





Eskuartean daukazuna zure bizitzako etapa berri honi gogoz ekiten lagunduko dizun katalogo bat da. Bertan Gazteria Arlotik eskaintzen dizkizugun hainbat zerbitzu aurkituko dituzu.

Laburpena baino ez da, apurka-apurka ezagutzen joango zaren askoz gauza gehiago egiten ditugu.

Arretaz begiratu zerbitzu bakoitza zuzenduta dagoen adin tartea, ez erratu.

Zure gustuko gauzak ikustea espero dugu.

## ZERBITZU INLUSIBOAK

Ikusiko duzunez, katalogo honetako zerbitzu eta programa batzuen ondoan lau hatzamar dituen ondoko esku urdin hau jarri dugu.

Honek esan nahi du aniztasun funtzionala, hau da, desgaitasunen bat, duten pertsonen ekintza hauetan parte har dezaketela inklusio zerbitzuaren laguntzarekin.

Zure kasua bada, jar zaitez kontaktuan gurekin **inklusioa@getxo.eus** helbidera idatziz edo 688691527 telefonora deituz edo whatsapp bat bidaliz.

 @getxoinklusioa



ANIZTASUN  
FUNTZIONALA  
DIVERSIDAD  
FUNCIONAL



## HAUTAZKO INFORMAZIO ZERBITZUA

Zerbitzu honetarako harpidetza eginez gero zure sakelako telefonoan edo postontzi elektronikoan zuk aurrez hautatutako gaiari buruzko informazioa aldiro-aldiko jasoko duzu.

Harpidetza egitea erraza da. Zuzenean [www.getxo.eus/gazteria](http://www.getxo.eus/gazteria) orrian sartu eta "Informazioa jaso" izenekoa klik eginez ala Gazte Informazio Bulegora etorritz (Tangora etxea, Algortako etorbidea 98).

Informazio gehiago 944.660.353 telefonoan.

## GAZTELONJAK PROGRAMA

Lonjen programaren helburuak honako hauek dira. Alde batetik, lonjen erabiltzaileen eta auzokideen arteko bizikidetzak sustatzea eta, beste alde batetik, lonjen erabilera egoera ahalik eta seguruenan izatea.

Ez dago ordenantzarik lonjen erabilera arautzeko. Beraz, ez da inongo lizentziarik ematen lonjak irekitzeko. Horren ordez, lonjekin zerikusia duen edozeri buruzko galdera edo kexarik egotekotan edonor jar daiteke kontaktuan lonjen programarekin. Gomendio batzuk egiten ditugu lonjen erabilera ahalik eta seguruenan izan dadin eta bizikidetzak onartzeko.

### KONTAKTUA

#### Zerbitzuaren ordutegia:

#### Astelehenetik ostiralera

9:30etik 17:30era.

#### Uztaila eta abuztuan

astelehenetik ostiralera 9:00etatik  
15:00etara

Yaiza Castillero

**Tel.:** 944 12 66 58

638 32 20 65

**Email:** [gaztelonjak@getxo.eus](mailto:gaztelonjak@getxo.eus)



Gazte Informazio Zerbitzua 5 eta 30 urte bitarteko pertsonentzako doako zerbitzua da.




GAZTEEN ARTEAN  
IRAGARKIAK  
TRUKATZEKO DOAKO  
ZERBITZUA



NAZIOARTEKO  
TXARTELAK  
(aterpekeide txartela,  
ikasle txartela...)



GAZTERIA ZERBITZUAK  
ANTOLATZEN DITUEN  
IKASTARO ETA  
TAILERRETAN IZENA  
EMATEKO AUKERA



Lan eskaintzei,  
ikasketei, aisialdiari,  
bekei, diru-  
laguntzei, bidaiei eta  
abarrekoei buruzko  
**INFORMAZIO  
ZEHATZA**



**BIDAIEI BURUZKO  
BIBLIOGRAFIA  
ZERBITZUA**

## **NOLA ESKURATU DEZAKEZU INFORMAZIOA?**

- **Gazte Informazio Bulegoan:** Tangora etxea. Algortako etorb. 98
- **Gazte Informazio Guneetan:** 15 gune Getxo osoan zehar.
- **Gazteak aldizkarian:** Gazteak aldizkaria hilabeteroko lehenengo ostiralean argitaratzen da.
- **Zure sakelako telefonoan,** egin harpidetza doan.
- **Udalaren web orrian:** [www.getxo.eus/getxogazte](http://www.getxo.eus/getxogazte) helbidean.

## **ORDUTEGIAK:**

Astelehen eta asteartean itxita. Gainerako egunetan zabalik 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara (ostiral arratsaldean itxita)  
Abuztuan itxita

## **KONTAKTUA**

**Gazte Informazio Bulegoa**  
Tangora etxea. Algortako etorbidea, 98. 48991 Getxo.  
Tel.: 944 66 03 53  
Tel. edo whatsapp: 688 88 09 85  
[gaztebulegoa@getxo.eus](mailto:gaztebulegoa@getxo.eus)

# GAUEGUN GAZTELEKUA

## ZER DA?

Gaugun Gaztelekua 11 (beteak) eta 17 urte bitarteko gazteentzako lekua da. Lagunekin gustura egoteko, jendea ezagutzeko, hainbat jardueratan parte hartzeko edo zure ekimenak aurrera ateratzeko espazioa da.



## ZER EGIN DAITEKE BERTAN?

Hainbat gune daude:

- Topagunea: Berbetan, aldizkari bat irakurtzen edota Play edo Wii-an jolasten egoteko tokia.
- Lantegi-gela: Etxerako-lanak egiteko 17:00etatik 18:00etara edo mota guztietako tailerrak egiteko tokia.
- Ordenagailu eta mahai-joku gela.
- Ping-pong mahaia, futbolina eta filmak ikusteko proiektorea dituen gela.

## NOIZ IREKITZEN DA?

**Astearte, asteazken, ostegun eta igandetan:**

17:00etatik 20:00etara.

**Ostiral eta larunbatetan:** 17:00etatik 22:00etara.

**Udako ordutegia (uztaila)**

**Astearte, asteazken eta ostegunetan:** 17:00etatik 20:30etara.

**Ostiral eta larunbatetan:** 17:00etatik 21:00etara.

**Igandetan:** 17:00etatik 20:00etara.

Astelehenero eta abuztuan itxita dago.

## NON DAGO?

Urgull Kalea Z.G.  
3. solairua  
Algorta.

## ARGIBIDE GEHIAGO:


Tel.: 944 660 356  
gaegungaztelekua@getxo.eus  
www.getxo.eus



# GUREGUNE GAZTELEKUA

## ZER DA?

Guregune Gaztelekua 11 (beteak)-17 urte bitarteko gazteentzako lekua da. Lagunekin gustura egoteko, jendea ezagutzeko, hainbat jardueratan parte hartzeko edo zure ekimenak aurrera ateratzeko espazioa da.



## ZER EGIN DAITEKE BERTAN?

Hainbat gune daude:

- Topagunea, berbetan, aldizkari bat irakurtzen, pelikulak ikusten edota Play-an jolasten egoteko tokia.
- Ordenagailu eta mahai-joku gunea.
- Ping-pong mahaia eta futbolina eta dituen gela.
- Sukaldea, praktikatzeko eta tailerrak egiteko.

## NON DAGO?

Romo  
RKE  
Santa Eugenia Plaza 1,  
behea

## ARGIBIDE GEHIAGO:

Tel.: 944 660 022  
guregunegaztelekua@getxo.eus  
www.getxo.eus/gazteria



## NOIZ DAGO ZABALIK?

**Astearte, asteazken, ostegun eta igandetan:**  
17:00etatik 20:00etara.

**Ostiral eta larunbatetan:** 17:00etatik 22:00etara.  
Astelehenetan eta abuztu osoan itxita dago.

## Udako ordutegia (uztaila)

**Astearte, asteazken eta ostegunetan:** 17:00etatik 20:30etara.

**Ostiral eta larunbatetan:** 17:00etatik 21:00etara.

**Igandetan:** 17:00etatik 20:00etara.

Astelehenetan itxita dago.

# GAZTEENTZAKO JARDUERAK

## Izena emateko moduak honako hauek dira:

- Gazte Informazio Bulegora deituz.  
Telefonoa: 944.660.353
- Mezu elektronikoa bidaliz: [gaztebulegoa@getxo.eus](mailto:gaztebulegoa@getxo.eus). Zure izena eta nahi duzun tailerra edo ikastaroa jarri behar dituzu, eta harremanetarako telefonoaren zenbakia ere bai (ahal dela, sakelako telefonoa).
- Internet-en bidez [www.getxo.eus/gazteria](http://www.getxo.eus/gazteria) helbidean.
- Gazte Informazio Bulegoan (Tangora Etxea, Algortako etorbidea, 98).
- Ikastaro guztiak irisgarriak dira ezgaitasunak dituzten gazteentzat.
- Ikastaro guztiak doakoak dira.



## IRRATI TAILERRA

(11-17 urte)

Algortako Gaztelekua Irratiko tekniken bidez Getxoko gazteek 2030 Agendak jasotako 17 GJH (Garapen Jasangarrirako Helburuak) ezagutzeko aukera izango dute. Irratsaio bat sortuko dute GJHen eta tailerren inguruan ikasitakoak partekatzeko.

**Noiz:** Urriaren 2, 9, 16 eta 23an eta azaroaren 6an


**Ordutegia:** 17:30-19:30

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Izena emateko epea:** Irailaren 30era arte

**Lekua:** Algortako Gaztelekua





## MENDIAN ORIENTATZEKO OINARRIZKO TEKNIKAK (18-30 urte)

Mendian egoki orientatzeko oinarritzko teknikak. 8:30ean Fadurako autobus geltokian geratuko da eta Sarriara (Araba) joango gara Oinetako egokiak eta erropa erosoak ekarri. 8:30ean Fadurako autobus geltokian geratuko da eta Sarriara (Araba) joango gara.

**Noiz:** Urriaren 10ean

**Orduetgia:** 8:30-14:30

**Hizkuntza:** Elebietan

**Izena emateko epea:** Urriaren 7ra arte

**Lekua:** Sarria



## URPEKARITZA BATAIOA (IGERI-LEKUAN) (18-30 urte)

Ur azpiko sentsazioak bizi, urpekaritza tresnak erabili eta belarria konpentsatzen ikasiko dugu. 16:00etan Fadurako autobus geltokian geratuko da eta Bakioko igerilekuetara joango gara 16:00etan Fadurako autobus geltokian geratuko da eta Bakioko igerilekuetara joango gara.

**Noiz:** Urriaren 24an

**Orduetgia:** 16:00-21:00

**Hizkuntza:** Elebietan

**Izena emateko epea:** Urriaren 22ra arte

**Lekua:** Bakio



## ZINE FORUMA (11-17 urte)

Guatemalako OTRAN-RN Erakundearen eskutik hainbat filma labur ikusi eta haien inguruan hausnartu ahal izango da. 5. GJHaren inguruan lan egingo da oraingoan, hau da, sexu-aniztasun eta generoa.

**Noiz:** Urriaren 30ean

**Orduetgia:** 18:00 - 19:00

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Izena emateko epea:** Ez da beharrezkoa

**Lekua:** Algortako Gaztelekua



ANIZTASUN  
FUNKTSIONALA  
DIBERSIDAD  
FUNCIONAL



ANIZTASUN  
FUNKTSIONALA  
DIBERSIDAD  
FUNCIONAL



ANIZTASUN  
FUNKTSIONALA  
DIBERSIDAD  
FUNCIONAL



## HIP HOP (18-30 urte)

Algortako Gaztelekua Rebeca Lane Guatemalako raperoak emandako online tailerra. Hip Hop kulturako ARTibista hau erreferentea da Guatemala eta Ertamerikako Rap Feministan.

**Noiz:** Azaroaren 10, 17 eta 24an eta abenduaren 1ean

**Ordutegia:** 17:30-19:30

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Izena emateko epea:** Azaroaren 6ra arte

**Lekua:** Algortako Gaztelekua

Izena eman dutenei esteka emango zaie



## LANA ERA AKTIBOAN BILATZEKO TAILERRA (18-30 urte)

Lana bilatzeko teknika eta baliabideak ezagutuko ditugu; baita kurrikuluma egin eta lan pertsonala egiten ikasi ere.

**Noiz:** Azaroaren 14an

**Ordutegia:** 9:30-13:30

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Izena emateko epea:**

Azaroaren 11ra arte

**Lekua:** Zehaztu gabe



## PILATESEN OINARRIAK (15-17 urte)

Pilates ezagutzeko oinarritzko ariketa eta tresnak.

**Noiz:** Azaroaren 18ra arte

**Ordutegia:** 18:00-19:30

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Izena emateko epea:** Azaroaren 18ra arte.

**Lekua:** Algortako Gaztelekua



## KAMISETEN ESTANPAZIOA

(11-17 urte)

Romoko Gaztelekua Tailer honetako lehenengo zatian kamisetetan estanpatuko diren mezuen inguruan lan egingo da. Ondoren parte-hartzaile bakoitzak kamiseta bat baino gehiago estanpatuko du kamiseta batzuekin erakusketa ba egiteko. Lehenengo saioa Getxotik Mudura azokan izango da, azaroaren 29an, 11:00etatik 13:00etara.

**Noiz:** 29an eta abenduaren 4, 5, 11, 12 eta 18an

**Ordutegia:** 18:00-20:00

**Hizkuntza:** Elebietan

**Izena emateko epea:** Azaroaren 27ra arte

**Lekua:** Algortako gaztelekua



## AUTODEFENTSAFEMINISTA

(18-30 urte)

Tailerraren xedea da indarkeria sexistaren molde oro eta parekidetasun eza sustraitzen duten zutarriak identifikatzea. Baliabide eta teknika ikasiko ditugu, indarkeria matxista egoerei aurre egiteko.

**Noiz:** Abenduaren 12 eta 19an

**Ordutegia:** 10:00-12:30

**Hizkuntza:** Elebietan

**Izena emateko epea:** Abenduaren 10era arte

**Lekua:** Romo Kultur Etxea



## SENDABELARRAK

(18-30 urte)

Osasunerako alternatiba naturalen tailerra. Medikuntzari Mayek duten kosmobisioak egindako ekarpena ezagutu, balioetsi eta berreskuratu dugu. Batez ere, Guatemalako emakumeen begiradatik eta Guatemalako Oxlajuj E izeneko Emakumeen Erakundeak egindako Senda-belarren Esku-Liburuaren bidez.

**Noiz:** Urtarrilaren 16 eta 23an

**Ordutegia:** 10:30-13:00

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Izena emateko epea:** Urtarrilaren 14ra arte

**Lekua:** Romoko Gaztelekua



## MASKULINITE TOXIKO ETA BIDEO JOKUAK

(11-17 urte)

Bideojokoetan jolasten dugun bitartean, maskulinitate toxikoak eta emozioak kudeatzen ikasi. Zeintzuk dira eta nola erregulatu ditzakegu?

**Noiz:** Urtarrilaren 15 eta 22an

**Ordutegia:** 17:30 -19:30

**Hizkuntza:** Elebietan

**Izena emateko epea:** Urtarrilaren 15 eta 22an

**Lekua:** Algortako Gaztelekua



## GAZTEAK SAREAN

(11-17 urte)

Sare sozialen kudeaketari buruzko tailerra, arreta berezia jarritz youtube, instagram eta tik tok-en.

**Noiz:** Urtarrilaren 30ean

**Ordutegia:** 10:00-13:00

**Hizkuntza:** Elebietan

**Izena emateko epea:** Urtarrilaren 28ra arte

**Lekua:** Romoko Gaztelekua



**gazte**  
informazioa